UDALBATZARRA/PLENO MUNICIPAL Nº 05/2023

LASARTE-ORIAKO UDALBATZARRAK **2023ko MARTXOAREN 30ean** EGINDAKO **EZ OHIKO BATZARRALDIAREN** AKTA.

ACTA DE LA **SESIÓN EXTRAORDINARIA** CELEBRADA POR EL PLENO MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA EL DÍA **30 DE MARZO DE 2023.**

ETORRITAKOAK: / ASISTENTES:

| | | |
|---|---|---|
| ALKATE-LEHENDAKARIA:<br>ALCALDE-PRESIDENTE: | Dª Agustín Valdivia Calvo jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| ALKATEORDEAK:<br>TENIENTES DE ALCALDE: | Dª Lourdes Acevedo Beldarrian and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. David Mateos Jimenez jn | (PSE-EE-PSOE) |
| | Dª Nuria Fernandez Castrillo and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Dª Maite Iglesias Sánchez and. | (PSE-EE-PSOE) |
| ZINEGOTZIAK:<br>CONCEJALES: | Dª. Nagore Duran Urbistondo and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Jesús Alonso Ocáriz jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Iñigo Zabaleta García jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Jon Martin Tejeria jn. | (EH BILDU) |
| | Dª. Estibaliz Gamendia Arrieta and. | (EH BILDU) |
| | D. David Ares Rodriguez jn. | (ELOP) |
| | D. Miguel Angel Tolosa Avellino jn. | (ELOP) |
| IDAZKARIA:<br>SECRETARIO: | Dª Isabel Fuertes Matxin and.. | |

EZ ETORRIAK: / NO ASISTENTES

| | | |
|---|---|---|
| ZINEGOTZIAK:<br>CONCEJALES: | Dª Uxue Loinaz Urruzola and. | (EH BILDU) |
| | Dª Sandra Barcaiztegui Navarro and. | (EH BILDU) |
| | D. Jon Antxordoki Rekondo jn. | (EAJ-PNV) |
| | D. Boris Nogales Benito jn. | (EAJ-PNV) |
| | Dª Estitxu Alkorta Barragán and. | (EAJ-PNV) |
| BEHIN BEHINEKO KONTUHARTZAILEA:<br>INTERVENTOR ACCIDENTAL: | D. Enrique Lazcano Gaite jn. | |

Lasarte-Oriako Udaletxeko Batzar-Aretoan, 2023ko MARTXOAREN 30eko 09:00 zirelarik, aldez aurretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako Udalbatzar osoa bildu zen, Agustin Valdivia Calvo Alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Isabel Fuertes Matxin idazkari andreak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 09:00 horas del día 30 de MARZO de 2023, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Agustín Valdivia Calvo, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, la Secretaria Dª. Isabel Fuertes Matxin, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Udalbatzarra eratzeko "quórum" nahikoa badagoenez gero, Alkate jaunak eratua deklaratzen du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

1.- LASARTE-ORIAKO HIRI ANTOLAMENDU OROKORRAREN PLANAREN HASIERAKO ONARPENA.

Hirigintza, Obrak eta Ingurumen Batzordeak, 2023ko martxoaren 29an egindako bilkuran igorritako diktaminaren berri ematen da.

2020ko uztailaren 1ean, Alkatetzaren Dekretu bidez, Plan Orokorraren Herritarren Partaidetzarako Programa onartu zen. Programa 2020ko uztailaren 14ko 132. GAOn argitaratu zen.

Jarraian, 2020ko abuztuaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez, HAPOren aurrerapen-dokumentua jendaurrean jarri zen eta eztabaidatu egin zen. 2020ko uztailaren 20ko Diario Vasco egunkarian ere argitaratu zen

Herritarren Partaidetzarako Programaren arabera, herritarrei irekitako hainbat hitzaldi eta bileretarako deialdia egin zen, baita lantegietarako, taldeekiko berariazko bileretarako, ibilaldi gidatuetarako eta abarretarako ere. Horretarako idatzitako HAPOren aurrerapen-faseko partaidetza-prozesuaren emaitzen dokumentuan jasotzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari buruzko Legearen 90. artikuluan xedatutakoa betez, Babes Zibilari, Ingurumenari, Kultura Ondareari eta Natura Inguruneari buruzko txostenak eskatu zitzaizkien Eusko Jaurlaritzako eta Aldundiko organoei, eta honako txosten hauek jaso ziren:

1.- APROBACIÓN INICIAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE LASARTE-ORIA.

Se da cuenta del dictamen emitido por la Comisión de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente emitido en sesión celebrada el 24 de marzo de 2023.

Con fecha de 1 de julio de 2020, por Decreto de Alcaldía fue aprobado el Programa de Participación Ciudadana del Plan General.. El programa se publicó en el BOG 132 de fecha 14 de julio de 2020.

Seguidamente, mediante anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 5 de agosto de 2020, el documento de Avance del PGOU fue sometido a exposición pública y debate. También se publicó en el Diario Vasco de 20 julio de 2020.

De acuerdo con el Programa de Participación Ciudadana se procedió a la convocatoria de diversas charlas y reuniones abiertas a la ciudadanía, talleres, reuniones específicas con colectivos, paseos guiados, etc. que se recogen en el documento de resultados del proceso participativo de la fase de Avance del PGOU redactado al efecto.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 90 de la Ley de Suelo del País Vasco se solicitaron informes de los órganos de Gobierno Vasco y Diputación sobre Protección Civil, Medio Ambiente, Patrimonio Cultural y Medio Natural, habiéndose recibido los siguientes informes:

- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Kultura Ondarearen Zuzendaritza

Halaber, txostenak eskatu zitzaizkien aldameneko udalei, eta Donostiako Udalaren txostenak jaso ziren 2020ko urriaren 26an.
Lasarte-Oriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren irismen-dokumentua eman da, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2021eko otsailaren 25eko ebazpenaren bidez.

Irismen-dokumentuarekin batera, Kultura Ondarearen, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzaren eta Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritzaren txostenak bidali dira.

Jendaurreko erakustaldiaren ondorioz, 24 iradokizun-idazki aurkeztu ziren, behar bezala baloratu zirenak, bai eta prozesuan zehar bildutako txosten sektorialak, egindako kontsulten erantzunak eta Ingurumen Organoak 2021eko otsailaren 25ean emandako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua ere.

2021eko urtarrilaren 22an, herritarrek parte hartzeko eta ingurumena izapidetzeko prozesuaren esparruan ordura arte jasotako iradokizunei, kontsultei, dokumentuei eta txostenei buruzko txosten bat idatzi zen, eta, ondoren, 2021eko martxoaren 4an ingurumen-organoaren irismen-dokumentuari buruz egindako txostenarekin osatu zen.

Bestalde, 2021eko irailaren 27an, Udal Plangintzako Aholku Batzordeak Aurrerapenari buruzko txostena egin zuen, eta ikusi zen txosten hori bat datorrela Aurrerapenaren helburuekin, hargatik eragotzi gabe prozesuaren jarraipenean irtenbide egokiak zehaztea.

2021eko azaroaren 4ko osoko bilkuran berretsi ziren HAPOren formulazioan jarraitu beharreko irizpideak eta helburuak.

Akordio horren arabera, idazketa-taldeak, udaleko zerbitzu teknikoekin batera, HAPN berria

- Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología.
- Dirección de Patrimonio Cultural

Asimismo, se solicitaron informes a los Ayuntamiento colindantes, habiendo recibido informes del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, el 26 de octubre de 2020.
Se ha emitido el Documento de Alcance del Plan General de Ordenación Urbana de Lasarte-Oria, mediante resolución del Director de Administración Ambiental de 25 de febrero de 2021.

Junto con el documento de Alcance se han remitido informes de las direcciones de Patrimonio Cultural y Patrimonio Natural y Cambio Climático, y de Atención de Emergencias.

La exposición pública dio lugar a la presentación de 24 escritos de sugerencias que fueron valorados oportunamente, así como los informes sectoriales recabados durante el proceso, las respuestas a las consultas realizadas y el documento de alcance de la evaluación ambiental estratégica emitido por el Órgano Ambiental con fecha de 25 de febrero de 2021.

Con fecha de 22 de enero de 2021 se redactó un informe referido a las sugerencias, consultas, documentos e informes recibidos hasta entonces en el marco del proceso de participación ciudadana y de tramitación ambiental, que fue posteriormente complementado con el informe emitido el 4 de marzo de 2021 en relación con el documento de alcance del órgano Ambiental.

Por otra parte, con fecha de 27 de setiembre de 2021 el Consejo Asesor de Planeamiento municipal emitió informe sobre el Avance, observándose que dicho informe concuerda con lo objetivos del mismo, sin perjuicio de que en la continuación del proceso se concreten las soluciones oportunas.

En sesión plenaria de 4 de noviembre de 2021 se ratificaron los criterios y objetivos a seguir en la formulación del PGOU.

De conformidad con dicho acuerdo se trabajó por parte del equipo redactor, junto

formulatzeko lan egin zuen, eta, aldi berean, hirigintza-batzorde batzuk garatu dira, prozesuaren jarraipena egiteko.

con los servicios técnicos municipales, en la formulación del nuevo PGOU, a la vez que se han desarrollado varias comisiones de urbanismo en las que se ha hecho seguimiento del proceso.

Horren guztiaren ondorioz, hasierako onespenerako aurkeztu den Plan Orokorraren dokumentua idatzi da.

Todo ello ha dado lugar a la redacción del documento de Plan General que se presenta para su aprobación inicial.

En el turno de debate toma la palabra el Sr. Ares del grupo municipal ELOP.

A continuación toma la palabra el Sr. Alcalde.

Bozkatzera jarrita Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko hamar botorekin (8 PSE-EE-PSOE, 2 ELOP) eta kontrako bi botorekin (2 EH BILDU) honako **AKORDIOA** hartzen du:

Sometido a votación el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con diez votos a favor (8 PSE-EE-PSOE, 2 ELOP) y dos votos en contra (2 EH BILDU) **ACUERDA** lo siguiente:

Lehenengoa.- Lasarte-Oriako Hiri Antolamenduko Planari hasierako onarpena ematea

Primero.- Aprobar con carácter inicial el Plan de Ordenación Urbana de Lasarte-Oria.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, Ingurumen Azterketa Estrategikoa eta Planaren laburpen exekutiboa, 45 eguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, eta ,gainera, udalerrian zabalkunde handiena duen egunkarian edo egunkarietan ere argitaratuko da. Egoitza elektronikoan eta egokitzat jotzen dituen gainerako komunikabideetan ere argitaratuko da.

Segundo.- Someter a información pública el Plan General de Ordenación Urbana, el Estudio Ambiental Estratégico y el resumen ejecutivo del Plan, en el plazo de 45 días, a partir de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, publicándose igualmente en el diario o diarios de mayor circulación en el término municipal. Se publicará también en la sede electrónica y en los demás medios de comunicación que considere pertinentes.

Hirugarrena.- Sektore-eskumenak dituzten erakunde eta entitate publikoen nahitaezko txostenak eskatzea.

Tercero.- Proceder a solicitar los informes preceptivos de los organismos y entidades públicas con competencias sectoriales

Laugarrena.- Euskara Sailari helaraztea, hizkuntza-inpaktuari buruzko azterlana izapidetu dezan, hala badagokio.

Cuarto.- Dar traslado al Departamento de Euskera, para la tramitación, si procede, del estudio de impacto lingüístico.

Bosgarrena.- Hasierako onespenaren dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa bidaltzea aldez aurretik kontsulta egin zaien eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei, aurreko apartatuan ezarritako epe berean, egokitzat jotzen dituzten txostenak eta alegazioak egin ditzaten.

Quinto.- Remitir el documento de aprobación inicial y el estudio ambiental estratégico, a las administraciones públicas afectadas y a las personas interesadas que han sido previamente consultadas, para que, en el mismo plazo establecido en el apartado anterior, emitan los informes y alegaciones que estimen pertinentes.

Honako hau da erakunde eta pertsona interesdunen zerrenda: «Irismen-dokumentua, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2021eko otsailaren 25eko Ebazpenaren bidez

La relación de organismos y personas interesadas son las señaladas en el «documento de alcance que se formuló mediante resolución del Director de

formulatu zena.

Seigarrena.- Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren dokumentua Lasarte-Oriako udal mugakideei bidaltzea.

Zazpigarrena.- Ondorengo eremuetan, behin betiko onarpen, baimen eta lizentzia guztiak etetea, gehienez ere bi urteko epean, aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea badakarte:

- "1.1 Geltoki 7/9" azpieremua
- "Beko errota", 9.1 azpieremua.
- "11. Kotxetegiak" eremua.
- "16 Oria-Gain" eremua (behin betiko onarpenak bakarrik)
- "Oztaran/Arranbide" lursaila.c.1/19.1
- Geltoki eta Sagardotegi kaleetako lurzatiak, gaur egun finkatuta daudenak
- Indarrean dauden arau subsidiarioetako Goiegi-Gora eremua, deskalifikatzen dena eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen dena.

Era berean, eten egingo da Plan honetako Hirigintza Arau Orokorrek ezarritako araubidea urratzen duten lizentziak eta baimenak ematea (erabilera-aldaketak, erabilera turistikoko etxebizitzak, bereizketak, etab.).

Eta beste aztergairik ez dagoenez gero, goiburuan adierazitako eguneko 09:30 direlarik, lehendakari jaunak amaitutzat eman du batzarraldia, eta haren akta hau jaso da. Nik, idazkariak, akta honen edukiaren fede ematen dut.

Administración Ambiental de 25 de febrero de 2021.

Sexto.- Remitir el documento del Plan General de Ordenación urbana, a los Ayuntamientos limítrofes de Lasarte-Oria.

Septimo.- Proceder a la suspensión, por el plazo máximo de dos años del otorgamiento de toda clase de aprobaciones definitivas, autorizaciones y licencias en los siguientes ámbitos en las que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente

- Subámbito "1.1 Geltoki 7/9"
- Subámbito "9.1 Beko errota".
- Ámbito "11 Cocheras".
- Ámbito "16 Oria-Gain".( solo aprobaciones definitivas)
- Parcela "c.1/19.1 de Oztaran/Arranbide"
- Parcelas de las calles Geltoki y Sagardotegi que se consolidan en su situación actual.
- Ámbito "Goiegi-Gora de las Normas Subsidiarias vigentes que se descalifica y pasa a clasificarse como suelo no urbanizable.

Asimismo, se suspenderá el otorgamiento de licencias y autorizaciones ( cambios de uso, viviendas de uso turístico, segregaciones, etc) que contravengan el régimen impuesto por la Normas Urbanísticas generales de este Plan

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 09:30 horas del día indicado en el encabezamiento, el Sr. Presidente da por terminada la sesión, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, el secretario, doy fe.